


## EAEko gazteen erdiak baino zertxobait gehiago autonomien estatuaren alde agertu dira

***Dena dela, 2010 urtetik 2012 urtera EAEko gazteek autogobernu handiagoaren alde adierazitako gogoak areagotu dira***

[Gazteen Euskal Behatokiak](#) aztertu ditu Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariitzako [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) plazaratutako "Herrialde ereduak" izeneko txostenaren datuak, 18 eta 29 urte bitartekoei dagozkienak, hain zuzen ere.

Datu horien arabera, gaur egun EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen %57k nahiago du Autonomia Erkidegoen Estatua. Gehiengoa osatu duen talde hori bi multzotan banatzen da: alde batetik gaur egungo ereduak nahiago dutenak (%37) eta, bestetik, autonomia erkidegoek gaur egun baino autonomia handiago izango luketen estatu federala hobesten dutenak (%20).

Gainera, hamar gaztetik hiruk (%29k) nahiago lukete nazionalitateak (Euskadi, besteak beste) estatu independente izatea onartuko lukeen estatua. Azken talde hau da biztanleria osoarekiko alderik handiena duena (%23 biztanleria osoan eta %29 gazteengan). Gainera talde honen pisua 5 puntu gehitu da 2010etik hona; 2010ean aukera honi emandako babesak %24koa zen.



Bestalde, Estatuaren egiturari edo antolakuntzari erreparatzen ez badiogu, eta gure arreta osoa Euskadiko Erkidegoarentzat nahiago den autogobernu mailan jartzen badugu, ikus dezakegu egungoa baino autogobernu handiagoa lekarketen ereduakiko atxikimendua (federalismo eta independentziarekikoak, hain zuzen ere) 10 puntu igo dela azken bi urteotan.

Aitzitik, autonomia edo autogobernua murriztea lekarkeen aukera, hau da, gobernu zentral bakarreko estatuari bueltatzea, gazteen %4k soilik babestuko lukete.